



I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. Artikulua. Santiagotarrak Kirol Elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarteak da, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duena, eta honako kirol mota hauek bideratzen dituena:

- Kirol mota nagusiak: ARRAUNA eta PIRAGUISMOA.
- Aurrekoekin loturiko beste kirol mota batzuk.

Kirol klub honen izatearen gakoa da giza jarduera fisikoa eta kirola, oro har, eta Piraguismoa eta Arrauna bereziki, bultzatzea eta sustatzea, eta honako jarduera hauek kontuan hartuko dituen egitaraua zehaztuko du xede horri begira:

- piraguismo eta arraunaren sustapena
- kirol mailako teknifikazioa
- piraguismoa eta arrauna aisiarako jarduera gisa
- lehia kirolaren jarduera

2. Artikulua. Euskadiko Autonomia Elkarteak Kultura Fisikoa eta Kirola arautzen dituen 5/1998 legearen, 1989ko otsailaren 14ko 29/1989 Dekretuaren, Estatutu hauen, jardunbideak eta gestio-sistemak zehazten dituen Gestiorako Gidaliburuaren eta aplikatu beharreko beste araudiei, eta Batzar Nagusian eta gainerako gobernu organoetan legera onarturiko erabakiei jarraiki arautuko da Santiagotarrak Kirol Elkarteak eraketa, inskripzio, antolakuntza eta jarduerari dagozkien xehetasun guztietan.

3. Artikulua. 1986ko apirilaren 1ean, Notarioaren aurrean zehaztu eta sinatu zen sorrera agiriaren bitartez eratu zen Santiagotarrak Kirol Elkarteak. 1989ko otsailaren 14ko 29/1989 Dekretuaren xedapenak beteko ditu eraketa, Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroko inskripzio eta Estatutuen onarpenari dagozkion betebeharrak eta ondorio guztietan.

4. Artikulua. Santiagotarrak Kirol Elkarteak Gipuzkoako Lurralde Federazioaren barruko kidea izango da bideratuko dituen kirol mota guztietan. Elkarteari aplikatu ahal izango zaizkio, beraz, atxikirik egongo den Federazioaren edo Federazioen Estatutuak, Araudiak eta xedapen guztiak. Nagusiaz gainera, berezko kirol saila eratuko da Klubean bideratu diren gainerako kirol mota bakoitzeko.

5. Artikulua. Irunen egongo da Elkartearen egoitza, Bidasoa karrika, 2 helbidean. Egoitzaren kokagunea aldatuz gero, aldaketa horren berri eman beharko da Euskadiko Autonomia ERkidegoko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroan.

II. KAPITULUA

BAZKIDEAK

6. Artikulua. Elkarteak bazkide guztiak dira berdinak eskubide eta betebeharren alorretan, eta haien artean ez da, sortze, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo norbera edo gizarte mailako beste edozein arrazoiengatik, molde bateko edo beste bazterkeriarik sorraraziko duen xedapenik onartuko.

7. Artikulua. Mugarik ez du izango bazkideen kopuruak. Hala eta guztiz ere, bertan behera utzi ahal izango du Zuzendaritza Batzordeak bazkide berriak onartzeko bidea, kirol instalazioen edukiera fisikoak hala agintzen duenean.

8. Artikulua. Kirol Elkarteak kide izan daitezke honako pertsona hauek:

- a) Kirol elkartearen helburuekin bat datozenak, eta
- b) Zehazturiko kuota ordaintzen dituztenak.

9. Artikulua. Lehendakariari zuzenduriko idazkiaren bitartez egingo da elkarteak bazkide izateko eskaera. Haren berri emango dio Lehendakariak Zuzendaritza Batzordeari eta aurreko artikuluan zehazturiko betebeharren arabera erabakiko du honek eskaera onestea edo ezestea. Erabaki horren aurka ez da inolako errekurtsorik onartuko.



10. Artikulua. Honako eskubide hauek izango dituzte Elkarteko bazkideek:

- a) Elkartearen helburu berezietarako jardunean parte hartzeko eskubidea, indarrean dagoen legeriaren eta Estatutu hauen arabera.
- b) Elkartea libreki uzteko eskubidea.
- c) Elkartearen jarduera eta haren dokumentazioa ezagutzeko eskubidea.
- d) Elkartearen barruan iritziak libreki adierazteko eskubidea.
- e) Ordezkaritza eta gobernu organoetarako hauteskundeetan, hautesle eta hautagai izateko eskubidea. Hautesgarri izateko, adin nagusia eta jarduteko gaitasunaren jabea izango da, eta botorako eskubidea gauzatu ahal izateko, 16 urteak betetik eduki beharko ditu. 16 urte bete ez dituzten bazkideek Batzar Nagusiaren bilkura guztietan entzunak izateko eskubidea izango dute inolaz ere.

11. Artikulua. Bazkideen betebeharrak dira:

- a) Estatu hauetan zehazturiko arauak eta Batzar Nagusian eta Zuzendaritza Batzordean hartutako erabakiak onartzea.
- b) Duten karguaren araberako betebeharrak betetzea.
- c) Zuzendaritza Batzordeak onartuko dituen kuotak ordaintzea.
- d) Elkartek xede duen kirol jarduera ezagutaraztea eta bideratzea.

12. Artikulua. Bazkide izaera galduko da:

- a) Norberaren borondatez.
- b) Elkarteko kuotak ez ordaintzeagatik, Zuzendaritza Batzordeak horretarako arrazoirik ez dagoela ikusten duenean.
- c) Zuzendaritza Batzordeak hala onartuta.

13. Artikulua. Zigortu ahal izango dira Elkarteko bazkideak betebeharrak betetzen ez dituztenean. Zigor hauen arabera, eskubideak galdu ahal izango ditu bazkideak aldi batez edo elkartetik kanporatu ahal izango da betikoz. Hala eta guztiz ere, bazkidea inolaz ere ez da elkartetik kanpo gertatuko entzuna izateko eskubidea izango duen zigorrerako espedientea bideratu aurretik.

III. KAPITULUA

DOKUMENTUEN ERREGIMENA

14. Artikulua. Estatutu hauetan eta Elkartearen Gestiorako Gidaliburuan zehaztu dira Klubaren nortasun xehetasunak, lortu nahi dituen helburuak eta antolamendurako egitura. Elkartearen joera eta xedek adierazten dituzten orientabide nagusi gisa dihardute dokumentu horiek, eta Kirol Sail bakoitzaren jardunean garatu eta haien Urteko Planetan zehaztuko dira. Batzar Nagusiak onartuko ditu Urteko Planak, Elkartearen zerbitzu eraginkorra bermatzeko eta zalantzak, kontraesanak eta inprobisazioak saihesteko.

Hona hemen Elkartearen jardueraren eta gestioaren oinarrian dauden funtsezko dokumentuak:

- Elkartearen Estatutuak
- Gestiorako Gidaliburua
- Sailen antolakuntza eta barne araudiak
- Urteko Planak
- Urteko Memoriak
- Federazio eta Instituzioen lege eta araudien erreferentziak
- Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen Aktak
- Beste erregistro eta gestio dokumentu guztiak

Honako liburu hauek kontuko ditu egunean:

- a) Bazkideen Erregistroa
- b) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren Akten Erregistroa
- c) Kontaduria Liburua
- d) Behar izanez gero, Tituluen Erregistro Liburua eta Elkartearen ondare-zati guztiak zehazten diren Liburua edo dokumentuak.



15. Artikulua. Santiagotarrak Kirol Elkartearen jarduera egokirako behar diren betekizunen ordenazio sistematikoa zehaztea da Gestiorako Gidaliburuaren zeregina.

Horrez gainera, kontuan harturik Elkartearen izaera eta haren gestioaz inolako ordainik gabe lan egingo duten bazkideak arduratuko direla, zuzendaritza lanak erraztu nahi dira bereziki Gidaliburu honetaz, Zuzendaritza Batzordeen koherentzia eta iraunkortasuna bermatu ahal izateko.

Zuzendaritza Batzordearen egitekoa izango da Gidaliburu horren hasierako onarpena, eta haren esku egongo dira, halaber, ondoko berrikuspenak eta aldaketak. Bileraren aktetan zehaztuko dira honenbestez harturiko erabaki guztiak.

16. Artikulua. Bazkideen Erregistroan bazkideen izena, deiturak eta helbidea zehaztuko dira, eta adierazi ere egingo dira Elkartearen ordezkaritza, gobernu eta administrazio organoetan dituzketen karguak, horrelakorik bada. Zehaztu ere egingo dira bazkideen altak eta bajak, eta aipaturiko karguen hartze eta uzte datak.

17. Artikulua. Akten Erregistroan emango da Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak eginiko bileren berri, haien eguna, haietara bildutakoak, eztabaidaturiko gaiak eta harturiko erabakiak zehaztuz. Elkartearen Lehendakariak eta Idazkariak sinatu beharko dituzte agiri hauek.

18. Artikulua. Kontaduria Liburuan Santiagotarrak Kirol Elkartearen ondare, eskubide, obligazio, sarrera eta irteeren berri emango da, sarreren jatorria eta gastuen helmuga zein diren zehaztuz.

IV. KAPITULUA

ORDEZKARITZA, GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOK

19. Artikulua. Honako hauek dira Santiagotarrak Kirol Elkartearen organoak:

- a) Batzar Nagusia
- b) Elkartearen Batzorde Nagusia
- c) Lehendakaritza
- d) Kirol Sailak

I. ATALA

BATZAR NAGUSIAZ

20. Artikulua. Santiagotarrak Kirol Elkartearen Batzar nagusia da elkartearen organo gorena, bazkide guztiek osatua.

21. Artikulua. Honako betebeharrak hauek izango ditu, gutxienez, Batzar Nagusiak:

- a) Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzea, bazkideen zuzeneko boto libre eta sekretuaren bitartez.
- b) Elkartearen kontuak eta aurrekontuak onartzea.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Elkartea desegitea.
- e) Dirua maileguan hartzea.
- f) Ondasun higiezinak besterentzea eta ordainpean ezartzea.
- g) Zorra edo ondare kuota-partea zehazten duten titulu eskualdagarriak jaulkitzea
- h) Lehendakariaren edo Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura-mozioa onartzea

22. Artikulua. Urtean behin gutxienez bilduko da ohiko bilkuran Batzar Nagusia, aurreko urteko Memoria eta ekitaldiaren balantzea eta hurrengo urteko jardueretarako proiektua eta aurrekontua onartzeko, eta ohiz kanpoko bilkuran aurreko artikuluen c), d), e), f), g) eta h) puntuetan zehazturikoez aritzeko.



23. Artikulua. Elkarteko Lehendakariari dagokio ohiko Batzar Nagusira deitzea. Horrelakorik ezinezkoa bada, edo Lehendakariak ez badu egiteko hori beharreko epean betetzen, Zuzendaritza Batzordeak edo gutxienez botorako eskubidea duten bazkideen %5en ordez dihardukeen bazkide talde batek egin ahal izango dute Batzar Nagusirako deia, hauteskunde erregimenerako aurreikusi den guztia aldatu gabe.

Elkarteko Lehendakariak edo gutxienez botorako eskubidea duten bazkideen %20en ordez dihardukeen bazkide talde batek egin ahal izango du Batzar Nagusi Berezirako deia.

24. Artikulua. Elkartearen iragarki-taulan, zehazturiko eguna baino gutxienez 15 egun lehenago, ezarriko den iragarki baten bitartez egingo zaie bazkideei ohiko edo Batzar Nagusi Berezirako deia, eztabaidatu eta erabakiko diren gaien zerrenda zehaztuz eta haien inguruko dokumentaziorako bidea eskainiz.

25. Artikulua. Ohiko Batzar Nagusia edo Batzar Nagusi Berezia baliozkoa izateko, bazkideen erdiak hartu beharko du hartan parte lehenengo deialdian. Bigarren deialdian, ordea, aski izango da bazkideen hamarrenak parte hartuta, eta hirugarren deialdian baliozko bilakatu dute hartara bilduriko bazkideek, zenbat nahi ere direla. Nolanahi ere, 24 orduko tartea egongo da bigarren eta hirugarren deialdien artean. Batzar Nagusian ez da ordezeko botorik onartuko.

II. ATALA

ZUZENDARITZA BATZORDEAZ

26. Artikulua. Kirol elkarte zuzentzen duen organoa da Zuzendaritza Batzordea, eta haren kargu daude klubaren zuzendaritza eta administrazioa, eta Giza baliabideak eta ekonomia bitartekoak sortzea.

27. Artikulua. Lau urtean behin hautatuko dira Zuzendaritza Batzordea eta Elkarteko Lehendakaria, zerrenda itxien sistemaren arabera eta zuzeneko boto libre eta sekretuaren bitartez, botorako eskubidea duten bazkide guztiek esku hartuko duten bilkuran. Hautespena ezin egingo da ordezkarien bitartez. Ondokoek ardura hartu arte iraungo dute beren karguan Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak.

28. Artikulua. Hamaika kidek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea:

- Lehendakaria, Elkarteko Lehendakaria bera.
- Lehendakariordea
- Idazkaria
- Diruzaina
- Zazpi bokal. Haien artean egongo dira Arraun Sailaren Ordezkarria, Ur Lasaietako Piraguismo Sailaren Ordezkarria, Ur Bizietako Piraguismo Sailaren Ordezkarria, eta Aisiako Arraun eta Piraguismo Sailaren Ordezkarria.

29. Artikulua. Lehendakari edo Zuzendaritza Batzordeko kideak ezin egongo dira postu horietan beste ezein kirol klub edo elkartetan.

30. Artikulua. Batzar Nagusiak zehazturiko orientabideei jarraiki kudeatuko ditu Zuzendaritza Batzordeak Elkartearen egitekoen araberrako administrazio eta ekonomia jarduerak eta Giza baliabideak eta ekonomia bitartekoak sortzea. Gestiorako Gidaliburuaz eta hura osatuko duten gainerako bitartekoez baliatuko da horretarako.

31. Artikulua. Elkarteko Lehendakariari edo, ezinezkoa bada, Lehendakariordeari dagokio Zuzendaritza Batzordearen bileretarako deia egitea. Deiarekin batean zehaztuko da eztabaidatu eta erabakiko diren gaien zerrenda eta eskainiko da haien inguruko dokumentazioa. Bilera eguna baino gutxienez bi egun lehenago eta Zuzendaritza Batzordeak berak erabakiko duen moduan egingo da deia.

32. Artikulua. Zuzendaritza Batzordearen bilera baliozkoa izateko, kideen erdiek gehi batek hartu beharko dute parte lehenengo deialdian. Bigarren deialdian, ordea, aski izango da bi kidek parte hartuta, haietako bat Elkarteko Lehendakaria edo Lehendakariordea bada.

33. Artikulua. Elkarteko Lehendakaria edo, ezinezkoa bada, Lehendakariordea izango da Zuzendaritza Batzordearen bileretako burua eta haien koordinatzailea.



34. Artikulua. Bazkide izateko eskaerak hartu eta bideratu, elkartearen organoek egingo dituzten bileren akta idatzi, Bazkideen Erregistroa kudeatu, Iragarki Taula bere karguan hartu eta Elkartearen Gestiorako Gidaliburuan aintzat harturiko Prozeduren araberrako administrazio lanak bideratuko ditu Idazkariak.

35. Artikulua. Elkartearen kontaduria eramango du Diruzainak, sarreren eta irteeren kontu zehatza emanik, eta Elkartearen Gestiorako Gidaliburuan aintzat harturiko ekonomia lanetan hartuko du parte. Elkartearen fondoak bildu eta zainduko ditu Diruzainak, eta gauzatu ere egingo ditu Lehendakariak aginduriko ordainketak.

36. Artikulua. Honako arrazoi hauetako batengatik bukatuko da Zuzendaritza Batzordearen jarduera:

- Kide guztiek kargu utzi dutelako.
- Batzar Nagusiak haren aurkako zentsura-mozioa onartu delako.

37. Artikulua. Elkartearen Zuzendaritza Batzordeari erantzukizuna eskatu ahal izango dio Batzar Nagusiak zentsura-mozio baten bitartez. Horretarako, bilkura horretara bilduriko bazkideen bi herenek babestu eta onartu beharko dute zentsura-mozioa. Zentsura-mozioa onartzen bada, beren kargua utzi beharko dute Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek, baita Lehendakariak ere. Idatziz aurkeztuko zaio zentsura-mozioa Zuzendaritza Batzordeari, eta bazkideen gutxienez %20k sinatu beharko dute gutxienez. Xede horri begira egingo den Batzar Nagusi Berezirako deiak puntu bakarra izango du gai-zerrendan: zentsura-mozioaren eztabaida eta ebazpena edo erabakia.

38. Artikulua. Kideren batek uztea erabaki duela eta, Zuzendaritza Batzordean gertaturiko hutsuneak betetzeko orduan, dagokion Sailak erabakiko du ordezkoa zein izango den, kargua utzi duena Kirol Sail baten ordezkaria denean, eta hautagai-zerrendan ordezko ageri denak okupatuko du utzitako kargua Batzordeko gainerako kideen kasuan. Hauteskunde prozedura berri bati ekin beharko zaio, Zuzendaritza Batzordeko kideen kopurua seitik behar bada.

39. Artikulua. Elkarteko Lehendakariak hutsik gertatzen bada, Batzar Nagusi Berezirako deia egingo du Lehendakariordeak hilabeteko epean, Lehendakari berriaren izendapenari begira.

III. ATALA

LEHENDAKARIAZ

40. Artikulua. Lehendakaria da Elkartearen organo exekutiboa eta Elkartearen legezko ordezkaria, eta Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren burua, eta organo hauek legez harturiko erabakiak bideratu eta gauzatu behar ditu.

41. Artikulua. Lau urteko epe baterako izendatuko da Lehendakaria, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideekin batean, zerrenda itxien araberrako hautesle-zerrenden sistemaz. Lehendakari izendatuko da aukeraturiko hautagai-zerrendan aurren ageri den hauteslea.

42. Artikulua. Honako arrazoi hauetako batengatik bukatuko da Lehendakariaren jarduera:

- Kargua utzi delako.
- Batzar Nagusiak haren aurkako zentsura-mozioa onartu delako.
- Kide den Zuzendaritza Batzordearen agintaldia bukatu delako.

43. Artikulua. Lehendakariari erantzukizuna eskatu ahal izango dio Batzar Nagusiak zentsura-mozio baten bitartez. Horretarako, bilkura horretara bilduriko bazkideen bi herenek babestu eta onartu beharko dute zentsura-mozioa. Idatziz aurkeztuko zaio zentsura-mozioa Zuzendaritza Batzordeari, eta bazkideen gutxienez %20k sinatu beharko dute gutxienez. Xede horri begira egingo den Batzar Nagusi Berezirako deiak puntu bakarra izango du gai-zerrendan: zentsura-mozioaren eztabaida eta ebazpena edo erabakia.

Zentsura-mozioa onartzen bada, bere kargua utzi beharko du Lehendakariak, ez ordea Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideek.



IV. ATALA

KIROL SAILEZ

44. Artikulua. Elkartearen helburuen arabera, sail bakoitzaren gestioa eta zuzendaritza dira Kirol Sailen betebeharrak nagusiak. Horretarako, honako egiteko hauek bideratuko dituzte, gutxienez:

- Sailaren helburu nagusiak adieraztea, Urteko Planetan zehaztuz.
- Sailaren administrazio eta kirol organigrama zehaztea.
- Sailaren aurrekontua eta premien zerrenda prestatzea.
- Zuzendaritza Batzordeak emango dizkien baliabideak kudeatzea
- Federazioek adieraziko dizkieten lehiaketak antolatzea.
- Ikastaro eta ekitaldien antolakuntzarako proposamena egitea, Urteko Planaren barruan.
- Jarduera eta diziplinarako arau orokorrak zehaztea eta betearaztea.
- Giza baliabideak eta ekonomia bitartekoak sortzea.
- Zuzendaritza Batzordearen aurrean kirol sailaren eta, oro har, Elkartearen onerako diratekeen proposamenak egitea.

45. Artikulua. Bere antolakuntza eta jarduerarako araudia prestatu ahal izango du kirol sail bakoitzak. Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu Araudi horiek.

V. KAPITULUA

HAUTESKUNDE ERREGIMENAZ

I. ATALA

HAUTESKUNDE BATZORDEAZ

46. Artikulua. Hauteskunde Batzordea da hauteskunderen jarduna bultzatuko duen organoa eta hari dagokio hauteskunderen garapen egokia zaintzea. Honako funtzio hauek beteko ditu helburu horiei begira:

- a) Hauteskunde egutegia onartzea eta ezagutaraztea.
- b) Hautesleen errolda onartzea.
- c) Aurkezturiko hautesle-zerrenden berri ematea.
- d) Aukeraturiko hautagaien aldarrikatzea, beharreko akta idatziz.
- e) Egingo diren inpuñazio, erreklamazio eta eskaeren aurreko erabakiak hartzea.

47. Artikulua. Zuzendaritza Batzordea hautatu zen lau urteko epea amaitzear dagoenean, edo Estatutu hauen 37. eta 38. artikuluetan aurreikusi diren egoerak gertatzen direnean, eratuko da Hauteskunde Batzordea Elkartearen barruan.

48. Artikulua. Bost bazkidek osatuko dute Hauteskunde Batzordea:

- Elkarteko administrazio langileen ordezkari batek
- Kirol Sailen lau ordezkari, banan-banan harturik

Hautagaiak ezin izango dira Hauteskunde Batzordeko kide. Adinduena izango da Lehendakaria eta gazteena Idazkaria.

II. ATALA

HAUTESKUNDE JARDUNBIDEAZ

49. Artikulua. Hauteskunde Batzordea eratu den biharamunetik aurrera hilabete konplitu den egunean zabalduko da hautagai-zerrendak aurkezteko epea.



50. Artikulua. Hautagai-zerrenda aurkezteko epea 20 egunez luzatuko da gehienez eta 10 egun iraungo du gutxienez.

51. Artikulua. Zerrenda itxietan aurkeztuko dira hautagai-zerrendak- 7 hautagai eta bi ordezeko izango ditu bakoitzak. Kirol Sailek izendatuko dituzte zuzenean Zuzendaritza Batzordeko gainerako 4 kideak.

52. Artikulua. Aurkezpen epea bukatu eta biharamunean jakinaraziko ditu Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrendak. Beharreko publizitate egingo zaie hautagai-zerrenda guztiei, bazkide guztiek ezagutu ditzaten. Horretarako, gutxienez hamar eguneko epean erakutsiko dira Elkartearen Iragarki Taulan aldarrikaturiko hautagai-zerrendak, hauteskunde programekin batera, horrelakorik bada.

53. Artikulua. Hautagai-zerrendak jakinaraziko dituen egunean berean, gutxienez honako informazio hau ezagutaraziko du Hauteskunde Batzordeak Iragarki Taulan eta bazkideei postaz bidalitako gutunen bidez:

- a) Bozketa eguna, hamar eta hamabost eguneko epe barruan.
- b) Bozketa egingo den lekua eta ordua.
- c) Legezko epearen barruan aurkezturiko zerrendak, zerrenda-buruak edo Lehendakariagaiak zein diren espresuki adierazirik.

54. Artikulua. Bozketa jardun egokia zainduko du Hauteskunde Batzordeak. Horretarako, botoa eman nahi duen bazkide ororen dokumentazioa aztertuko du eta kreditazioan, emaniko botoen baliozkotasunaren edo bozketa jardunean gerta litekeen ezein gorabeheraren gainean egongo diren zalantzak ebatziko ditu. Horrez gainera, botoak kontatu eta zehaztuko ditu bozketaren ondoan, eta bozketa jardunaren hasiera eta bukaerako aktekin batean, botoen kontaktari dagokion akata ere idatziko du.

55. Artikulua. Boto gehien eskuratu duen zerrendako kideak izendatuko dira Zuzendaritza Batzordeko kide, eta Lehendakari zerrenda horretako burua.

56. Artikulua. Hautagai-zerrenda bakarra balitz, bozketarik gabe aukeratuko litzateke.

VI. KAPITULUA

ERREGIMEN EKONOMIKOAZ

57. Artikulua. Berezko aurrekontu eta ondare erregimenaren arabera jardungo du Santiagotarrak Kirol Elkartek. Sarrera guztiak, kirol lehiaketetan lorturiko etekinak barne, bideratuko dira elkartearen helburuaren garapenari begira. Inolaz ere ez du bere bazkideen artean etekinik banatuko.

58. Artikulua. Hona hemen Santiagotarrak Kirol Elkartek kirol jardueri begira aurreikusten dituen baliabide ekonomikoak:

- a) Bazkideen ekarpen ekonomikoak.
- b) Erakunde publikoen diru-laguntzak.
- c) Antolatuko dituen kirol ekitaldietan lorturiko etekin guztiak
- d) Ondare-ondasunen mozkinak, errentak eta interesak.
- e) Donazioak eta emango zaizkion maileguak edo kredituak
- f) Beste ezein baliabide, izaera iraunkorreko nahiz noizbaiteko.

59. Artikulua. Santiagotarrak Kirol Elkartek ordainpean ezarri eta besterendu ahal izango ditu bere ondasun higiezinak, maileguan hartu ahal izango du dirua eta jaulki ahal izango ditu zorra edo ondare kuota-partea zehazten duten titulu eskualdagarriak, 1989ko otsailaren 14ko 29/1989 Dekretuaren 42. artikulua xedaturiko betekizunak eta baldintzak betetzen baditu.

Kirol instalazioen edo horiek dauden lurren besterenduz lorturiko mozkinak guztiz erabili eta inbertituko dira gisa bereko ondasunen eraikuntzan edo hobekuntzan.



60. Artikulua.

- a) Nominatiboak izango dira Santiago Kirol Elkarteak jaulkiko dituen zor edo ondare kuota-parteen tituluak.
- b) Elkarteak horretarako sortuko duen liburuan inskribatuko dira tituluak, eta hartan zehaztuko dira halaber ondoko transferentziak.
- c) Titulu guztietan zehaztuko dira haien balio nominala, jaulkipen data eta, halakorik bada, interesa eta amortizaziorako epea.
- d) Inola ere ez da liberaturiko tituluen jaulkipena onartuko.

61. Artikulua.

- a) Elkarteko bazkideek baizik ez dituzte zor tituluak formalizatuko eta haien jabetzak inolako eskubide berezirik ez die emango, indarrean dagoen legeriaren arabera interesen kobrantzatik harantzago.
- b) Era berean, elkarteko bazkideek baizik ez dituzte ondare kuota-parteen tituluak formalizatu ahal izango.
- c) Batzar Nagusiak kasu bakoitzean zehaztuko duen moduan eskualdatuko dira zor edo ondare kuota-parteen tituluak. Titulu hauek inoiz ere ez dute etekin edo mozkinerako eskubiderik sortuko.

VII. KAPITULUA

ESTATUTUEN BERRITZEAZ

62. Artikulua. Estatutu hauek xede horretan deituriko Batzar Nagusi Berezian baizik ez dira aldatu, berritu edo indargabetu ahal izango. Bertaraturiko bazkideen bi herenen onarpena beharko da horretarako. Estatutuak berrituz gero, hasierako onarpenerakoan bezala jokatu beharko da Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroaren aurrean.

VIII. KAPITULUA

ELKARTEAREN AMAIERAREN KAUSAK

63. Artikulua. Aginte judizial eskudunak baino ez dezake Elkartea bertan behera utzi edo desegin. Hala eta guztiz ere, eta legeek zehaztuko dituzten kausez gainera, bere amaiera xedatu ahal izango du Elkarteak xede horretan deituriko Batzar Nagusi Berezian, bertaraturiko bazkideen bi herenek horrela erabakitzen badute. Nolanahi ere, erabaki horren berri jakinaraziko da Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroaren aurrean.

64. Artikulua. Elkartea iraungiz gero, Klubak lehenetsitako kirol motari dagokion Euskal Federazioak (edo hala behar ez badu Lurraldeko Federazioak) bereganatuko du kitapena egin ondoko ondasun gordina, Euskal Kirol Kontseiluaren on-ikusia jaso eta gero.

IX. KAPITULUA

DIZIPLINA ERREGIMENA

65. Artikulua. Diziplina mailako ahalmena bideratuko du Santiagotarrak Kirol Elkarteak joko eta lehiaketan arauen alorrean eta kirol jokaeraren mailan, Kirol Diziplinarako Araudia xedatu zuen 1989ko urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, 5/1988 Legea garatzen duten xedapenek, aplikatu beharreko Araudi bereziek eta Elkartearen organoek legeari jarraiki harturiko erabakiek zehazturikoari jarraiki.

Irun, 2004ko Abenduaren 26an

Idazkaria

Lehendakaria